

Sekulako ezustekoa!

Jon Unanue Lopez

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 3.

Beste askok bezala, nik *Iltzalleak* ipuin bildumaren bidez izan nuen lehen harremana Martin Ugaldere obrarekin; besteekiko diferentziarik izan zen ordea, nik intrigazko nobelatxo zelakoan erosi bainuen... "Gizeraltza", lehenengo ipuina irakurri nuenean hartu nuen zirrara ongi erroturik dut gogoan: intrigarako irriki guztiak uxatu zizkidan eta! Apartekoa iritzi nion liburuska hari, arrastoa uzteko modukoa. Gero eskuratu zitzaizkidan *Itzulera baten historia; Bihotza golkoan; Batasun eta zatiketen artean; Hablando con los vascos; Mientras tanto fue creciendo la ciudad; Pedrotxo*... Eta oraindik puska baterako daukat Martinen obrarekin gozagarri.

Bitarte luze horretan, gainera, Martin buruz buru ezagutzeko aukera izan nuen, elkarrizketa bat aitzaki, eta bere obrak ordurako nigan ernatua zuen atrakzioa bokazio bermatu zitzaidan hiru ordu eskasen buruan: bere obrak erraietakoak inarrosteko adina ahalmen zuen gizonak berak, Martinek, gogoeta eta hitzaren ukenduaz arrazoibide berriak zabaldu eta itxaropena ereitekoa gure herri honen gorabeheraz eta munduko bizipenez hitz egiteko tenorean.

Gaurkoan, berriz, Larramendi Bazkunak argitara eman duen Martin Ugaldere buruzko Aiurriren zenbaki berezi hau aurkeztea dagokit, eta eginkizun honetan hiru zedari ipini

nahi ditugu. Lehena, agerikoena, Martin Ugaldere omen eta gorazarre egin nahi diogula adierazteko, hala Larramendi Bazkunak nola, andoaindar guztien izenean, Andoaingo Udalak ere. Alferrik azalduko dizugu orain zergatia: esku-ahurretan arrazoiak gainezka izango dituzu jarraiko orrietan barrena egin ahala.

Bigarrenik, beharrezkoena, zuri gonbidapena luzatzea; eta zuk onartzea, noski. Horrek du guretzat benetako garrantzia: bere obra literarioa, bere kazetari sena, bere hausnarmen zorrotz eta sakona apartekotzat jotzearekin batera leku propioa, gaur eta biharkoa aldarrikatu nahi dugu euskaldunen artean Martinentzat eta bere lumaz emandakoentzat. Beraz, horren bila ere bagatoz, besteak beste ezagutzen ez duzuenak zaletzen ahaleginduz...

Hirugarren zedarria Martin Ugaldere berari asmoen golkoan zimiko egite aldera ipiniko

dugu: bere errotak lanean dihardu –ipuin liburu berria lekuko– eta bere emaria ez dela agortu adieraziz etorri zaigu orri hauetara. Besterik nahi al genuen ala? Errotarria astiroxeago eraginez bada ere, golkoan gordeak daukazunak ondu bezain laster plazara ditazun eskaera gogorarazteko jarri dizugu, Martin, azken zedari hau.

Jone Larrañaga kazetariari eskatu eta egotzi genion zenbaki berezi hau landu eta osatzeko ardura. Laguntza ugari jaso du Martinen lagun, senide eta herritarrengandik; Larramendi Bazkunak guztioi bere eskerrona azaltzen dizue. Hasierako asmoetan genuen

aldizkariaren halako bi egin du azkenik Jonek, ziurrenik bera ere Ugaldere obraren eta bizitzaren zirrarak, indarrak bete-betean harrapatuko duelako..., sekulako ezustekoan!